

**Joseph Mikelestorena**

**ZERURA NAI DUENAK  
AR DEZAKEN  
BIDE ERRAZA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio informatiko honen egilea: J. Urtzelai Lasaga.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00722.htm>

# ZERURA NAI DUENAK AR DEZAKEN BIDE ERRAZA

DON JOSEPH Mikelestorenak agertua,

BEHAR BEZALA.

Iruñean: Martin Joseph Rada-ren Etxean

ONGI BIZITZEKO MODU LABUR-ERRAZAK

## **Goiz oroko otoitza**

NERE JAUNA, TA Jangoikoa, milla esker, sortu ninzanetik onara, zure eskutik artu ditudan ondasun, ta fabore guziak gatik. Zure izenean nere egun onetako hitz, asmo, gogo, ta lan on guziak. Indazu Jesusen *Bihotzeko* amorea gatik diranak ongi egiteko grazia. (*Nai duenak bere animaren, nai duenak geiena zor dien Purgatoriokoen faboretan ofrezituko ditu.*) Jesus maitea, ez dedilla egun onetan bekatuaren loirik nere

bihotzean sartu: ala eskatzen dizut zure *Bihotze-*ko amorea gatik. *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.*

Gutziz garbia zaran, Jesusen Ama maitea, lagun zakizkit egun hau garbiró pasatzen. *Iru Abe Maria, etc.*

Nerekin zabilzan Aingeru guardiakoa, nere izeneko, nere debozioko Santu, ea Zeruan arkitzen zarazten guziak, izan zaitezte egun nere lagunzalle onak. *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.*

## **GOIZETIK ARRATSERAÑO egin behar diran, zenbait gauza**

Jan otordu, guzietan. *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.* Jesusen *Bihotze*ko amore penen ize-nean.

Ordu-oro Jesusen Ama Birjinari *Abe Maria, etc.* Irabazten dira berrogei eguneko induljenziak. *Abe Maria* esan ondoan, esaten ba-da.

Jesus, maitatzen dut zure *Bihotza*, eta eskez nago Birjiña Amari, lagun dakidan orain, ta beti.

*Beste berrogei egunekoak irabazten dira ordu oro, eta noiz-nai esatearekin.* Jesus maitea,

zure Bihotzari non nai, ta nion baño geiago Alda-  
reko Sakramentuan zor diodan, amoreari eran-  
zutea gatik, nai nikezu eman nere bihotz oso  
osoa.

Al dezun, egunean, enzunen duzu Meza bat.  
Ezin bazoazke Elizara, enzungo dituzu gozoz, ta  
deseoz egun artan munduan ematen diranak.

Egun oro esain duzu itxekoekin, edo kanpoan  
bazabilza, bakarrik, Ama Birjinaren Rosario san-  
tua.

Zere Bearri-begiez, zere mingain, ta bihotzaz  
idukiko duzu, bekatuz loitu ez ditezen, egun  
guzian kontu.

Arratsean etzin baño, len ekusiko duzu, zer-  
tan, edo nola pasatu dezun eguna: arkitzen ba-  
duzu, zenbait gauzetan utsegin dezula, eskatuko  
diozu Jainkoari barkazioa, eta esain dezu Akto  
Kontriziozkoa gisa onetan.

## **KONTRIZIOA**

Nere Jesu-Kristo Jauna, Jainko, ta Gizon egiaz-  
koa, nere Kriadore, ta Redentorea zeren ona

zaran, ta maite zaitudan gauza guzien gañean, damu dut zu ofendituaz: nai ditut konfesatu nere bekatu guziak, beren okasio, ta bide gastoekin, zure grazia, edo lagunzarekin batean.

Au esan, edo egin ondoan, eskatuko diozu Birjiña Amari iru *Abe Mariarekin*, gaua pasatze-ko, deusetan utsegin bage, gorde zaitzala Jesu-sen *Bihotzean*: ta *bihotz*-onen amoreak gatik esain duzu, *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.*

## **GAÑERAKO DENBORAN egin behar diranak**

Etzaitzu hasterik joain, baruren bat, edo zerbait mortifikazio egin bage. Konfesatuko zara haste oro, amabostetik amabostera, ogeiean, bein, edo beranduenean illetik illera.

Ez dezazula jai-igandeetan Meza nagusira joan bage utzi. Ez dezazula bezperetara falta, ez ta Rosario santu, edo beste edozein deboziosko lan, edo obretara ere.

Egun oitan irakurriko dezu zerbait, edo leitu-ko liburu onen batean. Irakurzen ez pa-dakizu, ira-

kur-zalleren bati ori zure aitziñean eragiñen diozu.

Egizu urteoro urteko Konfesio jenerala.

Okasio gaisto etatik iges egiteko, etsaiaren, ta aragiaren tentazioak garaizeko, ta mundu eroa oiñ pean erabilzeko, ekarriko duzu noizean bein zere gogora, zure bizitza, ta egunak laburrak dirala: zure bizitzan egiten dezun guziaz, il bezain laster, eman behar diozula, deus gordeko etzaion Jainkoari kontu esta, eta arrigarria, ta kontu au ongi ematen

Ez-pa-dezu, beharko duzula, Jainkoa Jainko den artean, edo beti egosten, ta erretzen egon infernuan.

*Edertasun, ondasunak  
lurra bere gauzekin,  
eriotzak uzten ditu  
urraturik ortzekin.*

*Kontu andi, kontu gogor,  
bekatuen kontua,  
ni zu emateko nago,  
ez non dakit, ez nola.*

*Kontu hau pasatuko da  
gutiren aitziñean;  
bigarren izugarria  
munduaren aurrean.*

*Non zabilza, zertako da  
anbat bekatu itsusi?  
Asko da bat, Infernuan  
erretzeko zu beti.*

*Zure begi loi zikiñak  
Egoin dira lerturik,  
zure zain, eta zure ezurrak,  
su, ta gar biurturik.*

*Suzko lanzez belarriak,  
bihotza ilzez josirik,  
sabela idukiko dezu  
pozoi, ta azufre egiñik.*

*Beti tiratuko dizu  
Dragoiak mingañetik:  
arrak eroriko dira  
buru-gorputz guzitik.*



*Ango suak, ango garrak  
edain dituzu beti:  
milla suge, zapo dira  
mai artako janari.*

*Odol muñak irakiten,  
ezur zañak urturik,  
aragi guzia egoin da  
ikatz egin, ta errerik.*

*Otso tzarrak, bas-urdeak  
an ortzak zorrozturik,  
erabillkor zaituzte  
urratu, ta lerturik.*

## **KONFESATU BAÑO LEN egin behar diran gauzak**

*Lenbizikoa:* bekatuen kontua ongi ateratzea. Bigarrena bekatuen gañean ziñezko damu, ta urrikimentua artzea, zeren diran Jainko guztiz mitagarri baten kontra egiñak, edo zeren eskua

ematen dioten, Jainkoari, Zerua kendu, ta Infernuan beti erretzen idukitzeko, oriek egiten dituen. Irugarrena: ez berriz bekatuetara itzulzeko, ta bekatuen okasio gaistoetatik iges egiteko, egiazko asmo, edo propositu sendo bat artzea.

Konfesatzera zoazenean ongi begira zazu, zertara zoazen, ta nórekin hitz egitera. Aserretua dadukazun, Jainko andiarekin bakeak egitera zoaz.

Bere lekuan, ta bere esku guziarekin dadukan Konfesore Jaunarekin hitz egitera zoaz. Hitz egiozu, bada, begi-bihotz humillekin. Ez diezagozula deus ere gorde; guzia dakien Jainkoa begira dago, osoro erraten ba-dituzu zere obenak, eta bihotza damuz, ta proposituz betea dadukazula, guzi guziak barkatzeko, bere hume maite zu egiteko, graziaz, edo doaiez betetzeko, bekatuarekin galdu dituzun ondasun, edo merezimentu guziak itzultzeko, ta sekulan aserretu ez palitzaitzu bezain, zurekin adiskide gelditzeko. Baña erran behar den gauzarík, gordetzen badiozu, leneko bekatu guziekin, ta egiten duzun konfesio gaistoaren kate izugarri batekin loturik utziko

zaitu, ta len baño eserreago geldituko da zurekin.

Ongi artzen den absoluzioak berekin dakartzi, Kristo Jaunak gugatik isuri Zuen, odolaren merezimentuak. Merezimentu oriekin, iturrian ongi beraturikako oiala baño, obeki garbitzen da, behar bezala konfesatzen denaren anima. Konfesatzera zoazenean, egizu kontu, Kristo Jauna ill zen Kalbario Santura zoazela, an eman zuen odol guzia, edo odolaren balioa zere bihotzean artzera, ta dituzun, animako loi guziak kenzera.

## **KONFESOREAREN OÑETARA BAÑO LEN erran behar den, otoitza**

Ah, nere Jainko maitea, badakizu, bai, zein gaistoa nazan ni, ta zein gogorra! Zere graziaren golpez bera zadazu arrizko bihotz hau, onetan sar dedin zure amorea, ta ar ditzadan begitan egin ditudan, ta egin nitzakeen bekatu guziak. Aita Eternoa, zure Seme maiteak eraman zituen neke-doloreak gatik, barkatuak gerta bitez arren

nere bekatuak. Ez diezagozula begiratu nere biotz gogorrari, begira zagozu dolorez, nere kulpak gatik, erdiratua dagoen, Jesus onarenari. Ez niri begiratu bakarrik, begira zadazu nere kulpak bere gañ artu dituen zure Seme arekin batean. Onen eskuetan utzi ditut nere gauzak. Onen *Bihotzean* nai nuke sartu nere bihotza, itzuli liezadan nere bidebageen, nere oben, ta kulpa damuz urturik, zure begietara atera ledin, zuri damurik emain ez-dizun gisan, edo estadian. Ala gerta dedilla, ta irabaz dezadala nik, artzera noan absoluzioarekin batean, zure bendizio santua, ta grazia.

## **Konfesatu ondoan erran behar dena**

Milla, ta milla esker Jainko maitea, zeren, lotua nen dukaten, bekatuen kate izugarriak urratu, ta autsegiñak utzi dituzun: Ez dut nik indarrik: ez dakit nola zure Misericordia, ta Piedadea laudatu: lauda zaitzatela nere izenean Zeruan diran Aingeru, ta Santu guziak. Uste dut,

zure laguntzarekin batean, ez nazala berriz bekatuen kate gaistoetara itzuliko. Zeruko Santuak gatik, zere Seme maite, ta onen Ama garbia gatik eskatzen dizut, didazula nere asmo, edo propositu onetan beti irauteko behar dudan grazia guzia.

## **KOMULGATU BAÑO LEN egin behar dena**

Komulgazeko zaudenean, begiratuko duzu ongi, edo pensatuko, zertara zoazen, ta nor gana, edo nor datorren zu gana. Zu gana dator Jesus maitea, Jainko, ta Gizon egiazkoa, Aitaren eskoietik dagoena. Zeruaren, ta lurraren jabea, zu egin zinduena, bere eskutik zaduzkana, zu galdu etzindezen, Gizon eginzena, ta zure begiratze, keñu, ta zuk egin, edo asmatu dituzun gauzarik txikienen kontu estu arrigarria artu behar dizuna: Jaun bat guzia dakiena, ondasunez betea, bazterrik bageko anditasuna duena, Zeruan diran Aingeru, ta Santuak begiratze batekin ikara daduzkana; Jaun au bada, da, bokadu

egiñik zure gana datorrena. Arritua dago Eliza, nola Jainkoa egin zen Gizon, ta sartu zen Birjiñ Ama garbiaren sabelean: *Non borruisti Virginis uterum*: geiago arritu behar luke, ekusirik sartzzen duzula zuk anbat bekaturen suge, ta sierpe iduki dituen zere barren orretan.

Badakizu nor zaran zu? Zu zara aren begietan aur txar bat, zere ezaguera, edo adimentua itsutasunez, ta illunbez betea dadukazuna, ta zere bihotza bekatzuz josai, ta loi egiña. Ekusi zazu, baldin Zenturion, edo Soldaduen nagusi gizon prestu Ebanjeliko ura ez-pazen trebe Kristo Jauna bere etxean artzera, nola trebe izain zaran zu Kristo Jauna bera zere itxe, edo barren zikin orretan artzeko? San Pedrok, zeren, gaistoa zela, zeritzan, etzion utzi nai oñak garbitzen; utziko diotzazu zuk beldurrik bage, dakizun bezain gaistoa zerala, oñak, eta den guzia bere Jainkotasunarekin zere barrenean sartzzen? Etzuen uste San Juan Bautistak, ken zitzakela Kristo Jaunaren zapatetako lokarriak: Aingeruak berak ez dira behar bezain garbiak aren begietara ateratzeko, ta zu atrebitzen zera, anbat bekatu iduki dituen, zere barreneko leze izugarri orre-

tan artzera Jaun andi ura bera? Alik ongiena garbitu, ta apaindu bage, etzenuke artuko zere etxe txarrean Errege bat; ta Errege guzien Erregea or artezeco, garbitu duzu ongi, ta apaindu birtutez, zere bihotzeko itxe txar, anbat denboraz, bekatuaren zikinkeriz ta pozoiez beterik egondu den ori?

Zertara ore dator zure gana Errege andi ori? Animako eritasun ta beharren azpitik zu ateratzera; zuri zere zorrak barkatzera, zu bere adiskide, ta bere kin bat egitera, ta zuri bere grazia-  
ren bizitz ederra ematera.

Birjiñ Amaren sabelera etorzearekin aditzera eman zuen Kristo Jaunak, anitz nai ziola munduar; ta etorzea rekin bein, ta askotan zure bihotzera, ez du ongi asko, edo klaroki aditzera ematen, nai zaituela zu berea egin, ta ondasunez betea utzi? Ustu zazu bihotza, ta garbitu ongi, ondasun oriekin betea geldi dedin: eska zagozu Espiritu Santuari, bigun diezazula, bere doai, ta birtuteekin, edertu diezazula, ta apaindu, orren Errege andiari eman behar diozun, zure bihotzeko hostatua. Eska zaiezu zere Aingeruari, ta Aldarean arkitzen diran guziei, bai ta Zeruko

Santu, ta Santai, ta guzien gañean, artzera zoa-zen, Jesus onaren Ama maiteari ere, erakutsi die-zazutela, zer egin behar dezun Errege andi ori zure itxeratzen denean, ta dagitela berak, zuk egin behar zenukena, ta berak dakiten guzia.

## **KOMULGATZERAKOAN erran behar den, otoitza**

Bihotz bekatuen damuz erdiratu bat eskatzen duzun, Jaungoiko ona, indazu zerorrek, orretara-ko behar dudan urrikimentu guzia. Ezin ekusi ditut, zu atsekabez bete zaituzten, nere bekatu zikiñak damu guziena ematen didatenak dira, Aldareko Sakramentu Santuaren kontra egin ditudanak, nere komunio gaisto edo probetxu gutxikoak, Elizan bazter etara begira, edo gogoia, Elizaz kanpoan nedukala egoteak, eta zure Gorpuz Santuak anbat aldiz ukitu dituzten nere mihi-ezpañez ain kontu guti idukitzeak, edo anbat aldiz behar ez diràn hitzakin zikintzeak. Zeren Balthasar Babiloniako Errege ark bere main paratu zituen Jerusalengo Elizako Kalizak,



galdu zituen bere Inperioko baster andiak, eta il zuten bere etsaiaren soldaduak: zer kastigu merezi dut nik, zeren anbat alditz, nere mingaiñ-ezpañak, anima, ta gorputza loitu ditudan? Bada Jerusalengo Kalizetan Zezenen odola sartzen zen; eta nere Gorputzean Kristo Jainko, ta Gizon egiazkoaren odola. Ah, Jesus ona, lotsaz, ta alkez beterik nator zure mai Santura! zure *Bihotzetik* nai nuke, nere gaitzak behar duten, erremedioa atera. Loi pitsik ezin eraman duen, ta amorez erretzen dagoen zure *Bihotzak* garbi dezala nerea; ta dagiela beste ain beste nere mihiarekin, begi, ta beharriekin, ta anima guziarekin, bihotz guzitik, eta osoro maita zaitzadan. Ala gerta dedilla.

## **KOMULGATZEAN, TA KOMULGATU-ONDOAN egin behar dena**

Komunioko maiera urbiltzen zaranean urbilduko zara, begiak lurrean dituzula, ta humiltasunez, ta errespetuz beterik. Apezak Hosti Santua

agertzen duenean, errain dezu arekin batean, hirur aldiz: *Ez naiz ni, Jauna, ez, zu artzeko diña: aski da zuk hitz bat erratea nere anima sendatzeko.*

Artuko dezu goero, nor artzen duen ezagutzen duenak bezala begi bilduekin, ta gogo bihotzak bera gan daduzkatzula.

Artu orduko joain zara baztertxo batera, edo zere tokira; ta, ezaguturik, zu zarala Sagrario bat., beren Jauna adoratzeko, ta maitatzen dauden, Aingeruz ingurutua, zurekin dagoen artean idukiko dituzu oriekin batean, beñere kendu bage, zere begiak, eta bihotza, Jaun andi orri begira, ta egoin zara, zurekin dagoeno, egiten dizun faborea gatik eskerrak ematen, ta dizun amoreari amorez erantzuten.

Oarzen ba zara, edo siñistea galdu ez paduzu, ezagutuko duzu, zure barrenean arkitzen dela, bederatzi illabetez bere sabelean Ama Birjiniak iduki zuen, ta Belengo Portalean otzez, ta negarrez-ikara egondu zen, Jainko Aur-egiña. Zer atsegin, ta kontentua Ama Birjinarena, Jangoiko Gizon hau bere barrenean zedukan denboran, eta gero bere besoetan, gu bekatutik ateratzeko

jaiorik ekusi zuenean! Ez dut nik atsegin, ta kontentuz beterik gelditu behar, ekusten dudanean nere barreanean, ta nere animaren besoetan etziñik Jaun andihau bera? San Pedrok erraten bazion, bere aldean ekusi zuen batean, Kristo Jaunari, ken zedilla, ain gizon gaistoaren aldetik, zer esan behar diot nik, nere barreanean sarturik ekusten dudanean?

Eldu da Kristo Jauna ni gana, anitz, dakien, guztiz ona den, ta nai duena egin dezaken Mediku bat bezala. Agertuko diozkat nere begietako, nere beharriko, mingain, ta bihotzeko zauri guziak, sendatuak utzi ditzan, dakien bidez, ta moduz. Agertuko diozkat nere oben, edo bekatuen arrasto, ta ondoreak, guzietatik garbi diezadan nere barrena, edo anima. Eskatuko diot, erakutsi diezadala, ez dakidan, ta jakin behar dudan guzia, ta diezkidala, bera maitatzeko behar ditudan indar guziak. Azkenean utziko diot bere eskuan nere bihotza, ta nazan guzia, guziaz dagien, jabeak bezala, nai duena.

Kristo Jaunaren Ama ekusi zuenean Santa Isabelek bere etxean, *nondik* (esan zuen) *nondik niri, edo zer nola, Jesusen Ama, ni eskustera?*

Obeki esan dezakezu zuk arriturik guzia, ta amorez zoraturik, Jesus bera etortzen zaitzunean zere bihotzera: *nondik niri onenbat fabore? Nondik niri mundu guziaren Jaun, ta Jabea? Nondik niri ni gatik gizon egin, ta il zen Jainkoa?* Esan dezaket alaber, Jakob Patriarka Santuarekin; *besarka idukiko zaitut nere bihotzean; etzaitut utziko graziz, ta ondasunez bete nazazun artean.* Arkitu dut (esan dezaket anima Santarekin) *arkitu nai nuena; emen idukiko dut nerekin; ez diot utziko, ni beñere bakarrik uztera, edo ondasunez bete nazan artean.*

## **KOMULGATU ONDOREN eman bear diran eskerrak**

Ni gana etorri zaran Zeruko Erregea, gaur ta sekula guzian izan zaitez nere bihotzaren Jaun ta Jabe Gaurgero zurea nai dut izan nazan guzi guzia. Zurea den ezkerre nere burua, bete zazu Zeruko asmoz, ta pensamentuz; ez dedilla nere gogotik galdu zure eriotzaren, ni gatik eraman dituzun damupenen, ta niri didazun bazterrik

bageko amorearen oitzapena, behartu nazan oroitzapen onek zure *Bihotzaren* idurira nere moldatzèra, ta zure damuaren damuz, ta amorearen amorez beterik bizitzera. Zer emain dizut, nere Jaungoiko ona, ni gana etorzearekin zuk egin didazun faborea gatik? Mundu guziaren Errege izana gatik, ni, nik izana gatik Aingeru guzien birtutea; nere birtutea, ta eskua laburrak izain lirake zure esku, ta anditasunaren aldean: zer egiñen dut bada zure begietan ager diteken bideren batez nere ezaguera zuri erakusteko? Sartuko naz Zeruko atsegin, ta gusto guziak bildu dituen zure *Bihotzean*; onekin, ta nerearekin egiñen dut bihotz bat, eta itzuliko dizut artu dudan diña; ta, nerearen amorea bakarrik orretarako asko ezden ezker, maitatu nai nuke Aita Eternoan, zure *Bihotzaren* amore guzia rekin; nai niozake *Bihotz* onekin zuk ematen diotzkatzun esker guziak eman; ta orain, ta beti laudatu behar duen bezala, alabatzen egon, bizi nazan artean, ta sekula guzian. Nere Jesus ona, hitzegiozu zuk nere lekuan.

# MEZA ENTZUTEKO MODUA

Gizonak, eta Aingeruak egiten dituzten gauza on guziakin baño, Meza batekin honra geiago ematen zaio Jainkoari. Ez da munduan Mezak adiña balio duen gauzarik. Meza da behar dugun guzia dekarren iturria. Mezan egiten diogu Aita Jainkoari ezin arran ditekeen baliozko present bat: nola bada ùka dezake, ori eskuetan dugula eskatzen zaion gauzarik? Meza enzùn ondoan bearsu gelditzen bagara, izain da, zeren ezdugun enzun behar bezala, edo zeren enzun dugun gogoia Elizaz kanpoan, ta bihotza Jainkoak dakien lekuan dadukagula, ta Jesusen odolaz biziak, ta eriotzaz kasorik egin gabe. Meza da Jesusen Gurutzeko neke, ta eriotzaren, odol isurtzerik ez dakarren, berritze bat. Enzuten dutenak, egoin dira Mezan, dena urratu, ta odolturik Gurutzean zegoen Jesusi begira baleude bezala, ta gogoan artzen dutela, nola egoin ziran hordu artan, an zeuden, San Juan, ta Birjiña Amaren bihotzak, eta begiak. Onelako asmoarekin Elizan sartzen dena, Mezan egoin da amore, ta nekezko Jesusen Pasio santuko itsasotik gogoia, ta

begiak kendu gabe sartuko da Jesusen *Bihotze*-raño: ta *Bihotz* orretan ikasiko du, nola bizi egun artan, ta eriotzeko orduraño. Ikasten duena egiten badu, izain du Zerutik, emen behar duena, ta an sekulako gloria.

### ***Meza asi baño len erran behar dena***

Badakit, Jainko ona, ez natorrela, behar nukean bezala, Meza au enzutera: zerorrek lagundu behar didazu, egiteko hau alik ongiena egiten. Egin nai nuke, fedez adimentua beterik, eta damuzko suan bihotza urtzen dadukadala. Aita, Semea, ta Espiritu Santua, zure izenean, eta nere, ta Purgatoriokoen onerako izan dedilla enzutera noan, ta Jesus maitearen lekuan dagoen, Apaiz Jaunaren eskuz eskeintzen dizudan, oraingo Meza ori.

### ***Meza Asitzerakoan***

Ezagutzen dut, nere Jauna, ta Jabea, ni bezain gaizki bizitu denak ez lukela, ni nagoen lekuan egon behar; baña zuk utzi nazun ezkerre emen sartzen, Meza ematera doan Apaizaren otoitzekin batean eskatu behar ditut nere beka-

tuen barkazioa. Aitorzen dut, Ama Birjinaren, S. Migel Aingeru, San Pedro, San Paulo, ta Zeruan arkitzen diran guzien begietan, pekatore nazala, ta agitz andia; bada gaur danik diot, artu ditudala begitan, ta nai ditudala sekulako utzi diranak; era bitarzeko emanik zuri, Jainko maitea, Birjina bera ta gañerako Zeruan diranak eskatzen dizut bihotz humill damuzko batekin, geldi ditezela guziak barkatuak.

### ***Apaiza Aldarera igaten denean***

Garbi zazu Jauna, nere bekatuen loia, enzundezadan bihotz garbi batekin, asi den, Meza. Bai arren nigatik, eta gañerako Zerukoak gatik ez-padere, Aldare orretan bere kutsua, edo relikiak dituzten Santuak gatik.

### ***Kyriek asten diranean***

Ez duzu, Jangoiko ona, zer begiratu gure gaizki egin edo bekatuetara: begira zagozu gu gatik, edo gu zorreatik ateratzera Aldare orretan agertuko den zure Seme maiteari: Seme orre gatik eskatzen dizut, barka ditzazula nere utsegiñak, nere oben, ta kulpak, eta ez dezazula utzi zere



eskutik, zure eskuak egin zuten, nere anima urri-  
kari hau.

### ***Gloria in Excelsis erran bitartean***

Atsegin ta kontentu Zeruan Jainkoak, eta Jainkoak nai duena egiten dutenak lurrean izan dezatela bake osoa. Aren eskutik artu ditudan ondasun, ta gauzak gatik, nai diozkat eman konta hal baño laudario, ta esker geiago. Dena bere eskutik dadukan, Aitaren Seme bakar, Jesus maitea, bekatuen azpitik ateratzea gatik gu, Jaunkoaren Bildots egiñik Aldarera zatozen gure Salbatzallea, urrikaldu zakizkigu, ta atera gaitzatzu lenbaitlen onenbat loi gaisto, ta karga andia-  
ren azpitik, eta eraman zure edertasuna Zeruan ekustera.

### ***Otoitzetako denboran***

Jesus maiteagatik, aren Amaren, ta egungo Santuaren izenean eskatzen dizugu, Jainko ona, ez dezazula ukatu Apaizak bere, ta gure onerako eskatzen dizunik. Nik eskatzen dizut nere bekatuen damu, ta barkazioa, ta emen, ta Zeruan zu bihotzetik maitatzeko grazia.

## ***Epistolako denboran***

Zere Profetei, ta Apostolei Eskritura Santan dagoena erakutsi zenien, nere Jainkoa, lagun zakizkit, orien, ta zure lekuan niri Zeruko bidea erakusteko dauden guzien erranak egiten; bada zure lagunzarekin batean egiteko nago ni gandik nai duzun guzia.

## ***Ebanjeliokoa***

Goititu naz nere Jaungoikoa, Zeru lurrei adirazteko, behar baliz, emain nukela zure Ebanjelio Santuko egiak gatik nere bizia, dudan bihotzeko odolarekin. Ebanjelioak erakusten didan bidea baizik ez dut nai nik artu. Kopetan, aoan, bularrean egin ditudan gurutzeak aditzera ematen dutena diot gogo guziarekin: diot bada, zere Ebanjelio garbian erakusten didazuna baizik siñistu nai ez dudala, ez dudala nai hitzez adirazi, edo bihotzez maitatu. Badakit, zure hitzak, eta egiak baño len galduko dirala Zerua, ta lurra.

## **Credokoan**

Jauna, sinisten dituz zuk agertu dituzun, ta Elizak erakusten dituen, egi guziak. Siñisten dut zu zarala Jainko bat, eta iru Persona, Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Siñisten dut, zu zarala Jainko asierarik izandu etzuen, ta beti iraun behar duzuna, nai duzun guzia egin dezakezuna, ta Zerulurak diran gauzekin egin dituzuna. Siñisten dut, Aitaren Seme bakar gure Jesu-Kristo Jauna, gauza guzietan Aita diñakoa; egin zela gugatik gizon, edo gu, suzko leze arrigarrian erori lekuan, sar gindezen Zeruan. Orretarako jaio zen bere Birjina Ama gandik, bizitu zen lurrean, ill zen gurutzean, illen artetit atera irugarren egunean, ta igan zen Aitaren eskoieko aldera, andik etortzeko onai Zerua, ta gañerakoei irabazi zuten sentenzia ematera. Siñisten dut Espiritu Santua dela Aita, ta Semea bezala, Jainkoa, ta birtuteen, ta Zeruko doaien iturria. Guzia beingoan esatea gatik, siñistenditut, ezin utsegin dezakean, Eliz Ama Santak erakusten dituen, egia guziak. Indazu, Jauna, siñiste bizi bat, ta siñiste onek eskatzen duen bezala bizitzeko grazia.

## **Ofertoriokoan**

Jauna, zor dizudan guziari erantzutea gatik, eta begitan artu ditudan, nere bekatuen alde ematen dizut Apaizaren eskuz, diran gauza, guziak, baño, geiago balio duen ta gure zorrak bere gain artu dituen zure Semea. Seme one gatik barkatu behar dituzu nereak ez-ezik, emen nerekin arkitzen diranen, ta Purgatorian daudenen zor guziak; eta ez dezazula eman bage utzi, ni gandik zerbait uste dutenai, behar duten gauzarik.

## **Konsagratu artean**

Gu gana zatozen ezkerro, gure Jesus maitea, garbi zazu gure bihotza bekatuen loi ta kutsutik; bada ez dago ongi zure begietan gauza lizunik. Amorez erretzen dagoen zure *Bihotzeko* sutik eman behar diguzu zerbait, bero dedin gurea, ta maita zaitzagun gogotik. Asko zor dizut, Jesus maitea, bada gu gatik, urtean bein ez-ezik, egun oro, ta egunean anitz aldiz ere, etorzen zara Mezakoan gu gana; ta etorzen zara, gurutzean eman zenuen, odola gure zorren alde zere Aitari

eskeinzero. Non arkituko ditugu, zuri zor zaizkitzun eskerrak?

Jesusen, ta gure Aita, Zerua utzi gabe, lurre-ra dator zure Semea. Ba-dakizu, Seme onek, mundu guziak baño, geiago balio duela. Badakit nik ere, ez dela hau adiña, estimatzen dezun gauzarik. Onenbat estimatzen dezun, zere Semea eman nai dizut Eliza guziaren, Elizako Nagusien, nere Aide, adiskide, ta etsai guzien izenean. Seme bera gatik ekazkitzu zere Elizara, Elizan sartu bagez, galdurik dabilzan guziak. Gora izkitzu, edo jaso bekatutik, bekatuaren loiean dautzanak. Ar bezate elkar, elkara ikusi nai ez dutenak. Atera bi elkartez Purgatorioko sutik, an erretzen daudenak, eta lenbiziko lekuan Jesusen *Bihotza*, ta Ama Birjina, geiena maitatu dutenak. Lagun zakizkigu guri, izan gaitezen bizi garaño behar dugunak.

Orain Apaizaren eskuz zure eskuetarako da gure zorren pagatzalle, zure Seme Maitea. Egunen batean agertu beharko dut nik ere, zuri nere zorren kontu ematera. Ah gaur danik iltzen balira nere asmo, lan, ta gogo gaisto guziak, nere, behar ezdiran, hitzekin! Geroz izain ninzake,

zure begietan ager nindekean, presenta. Gu gatik Aldarera zatozen Jesus maitea, egin gaitzatzu bat zerekin. Erre zazu zere suz nere bihotza, ta utzazu guzia zurea dirudiela, izan ez dezan, zuk nai ez duzun asmo edo gogorik.

### ***Hosti Santua goratzean***

Amorez *Bihotza* erretzen dadukazun, munduko bekatuak kentzen ditutzun, Zerulurrak ondasunez betetzen dituzun, ta Hosti orretan zauden, Jesus maitea, indazu zere sutik zerbait; eta erre zazu nere bihotza, eskeñi diozadan zurearekin batean zure Aitari. Bitartean indazu egin ditudan bekatuen ziñezko damu, ta urrikimentu andi bat.

### ***Kaliza goratzean, ta ondotik***

Guziak gatik isuri ziñan Jesusen, odola, itzalizazu, nere bihotza erretzen Duen, lurreko su zikin gaistoa, ta garbi zadazu bekatuaren loi, ta Kutsuetatik; eta indazu, berriz loiean erori ez nadin, eskua. Niri eskua ematea gatik, besoak gurutzean zabaldu zenituen; infernuko miru gaistoak nere ondotik zebiltzañean, zure *Bihotzean* gorde nendin, zere bularra idikia utzi zeni-

dan, ta nere bekatuen, loiak kentzeko, zenuen odol guzia eman zenuen, Jesus, hau bein egitea, guti baliz bekala orain berritzen da guzia; bada berritzen da, hal bezala, Meza Santuan, anbat nekerekin eraman zenuen Pasioa. Orduko nekeagatik, betiko amorea gatik, eta oraingo fabore berria gatik, lagun zakitkit nere bizi guziko neke-lanetan, izan ditezen guziak zure begietara ager ditezkeanak.

### ***Hostia Santuarekin Gurutzeak egitean***

Gurutzean goraturik munduari begira egondu zihan, Jesus maitea, begira zagozu bearrean dagoen nere anima tristeari, ta emaiozu behar duen atsegin, konsuelo, ta grazia.

### ***Pater noster esatean***

Zerorrek erakutsi zenigun, *Aita gureko* otoitz edo orazioan eskatzen den gauzarik, uka ezdakidan, nai diet, zure esanak eguteagatik, Jesus maitea, barkatu zure izenean nere etsaiei egin didaten gaizki edo bidegabe guzia; ta indazu ordañez nere kulpen barkazioa.

## ***Agnus Dei esatean***

Munduko bekatuak kenzeko zere odol guzia eman zenuen, Bildots manso, Jesus ona, balia dakidala odol garbi ori; ken diezadala nere kulpen loi guzia, ta utz nazala indarrez beterik nere pasio, ta aztura gaistoak garaitzeko, ta nai nukean bezala, nere gauza guziak egiteko.

## ***Komunioko denboran***

Gorputza gurutzean ill zeneko, animarekin linboko guziak ekustera, ta atsegin ta gustoz betetzera jaitsi ziñan Jesus maitea, atoz arren nere barren illun hau argiz, ta graziz betetzera, edo zauden Aldare orretatik, indazu Komunio Santu batean irabaz nezakean guzia.

## ***Azken Otoitz, edo Orazioan***

Linbotik atera, ta berrogei garren egunean Linboko ekin Zerura igan ziñan, Jesus gurea, eraman nazazu, deritzazunean, nekezko bizi onetatik, nekerik ez duen zere gloriara.



## ***Azkeneko Ebanjelioan***

Zerura zu igatearekin triste gelditu ziran zure Apostolo, ta gañerakoai Espiritu Konsolagarria bidaldu zenien Jesus ona, egizu, datorkidala niri ere, bere graziaren konsueloz betetzera; indarrak arturik, eta emengo nekeak garaitzen ditudala, sar nadin egunen batean, angoen lagun izatera, zure Zeruan. Amen.

## **KALBARIOKO ESTAZIOAK**

Kalbarioko debozioa, Jesusen amak, Jerusalemen asi ta Semearen obí edo Sepulkroraño, egin zuen bidearekin erakutsia da. Jesus onari bide artan gertaturiakoaren señaletzat, dauden Gurutze bakoitzean belauniko esan behar da ango otoitz, edo ofrezimentua, *Aita gurea, ta Abe Maria-rekin*. Jesusen Ama da, munduko bide makurrak, eta josteta zikiñak utzirik, bide au artu nai dutenen gia, edo gidaria. Amabigarren *Inozenzio* zeritzan Aita Santuak laudatua daduka, ta Induljenziz betea Kalbarioko debozioa. Irabaziko

dituenak askotan behar du maiz ibilli emen Jesusen Amaren ondotik.

## **KALBARIOKO BIDEA ASITZEAN egin beharden otoitza**

Astera noan Kalbarioko bidean eman behar ditudan pausuak izan bitez, Jesus maitagarria, zuk Gurutze, pisuarekin zenbiltzala, Jerusalendik Kalbariora eman zenituenen izenean, ta Aita Santuak debozio hau egiten dutenai berezi, edo seinalatu diezten Induljenziak irabazteko. Irabazten dudan guzia izan bedi nik geiena zor diedan, edo zuk nai dezun, ta Purgatorioan erretzen daudenen fabore.

### **LENBIZIKO GURUTZEKO OTOITZA**

***Azoteen ondoan ematen zaio Jesus onari  
ilzeko Sentenzia***

Gaizkigille bat bezala loturik Juezez Juez ibili ziñan, ta azotez urratua utzi zinduzten, Jesus maitea, Pilatosek eman zizun, ta gugatik onzat

artu zenuen Gurutzean illzeko sentenzi gogorra gatik, lagun zakitkit eramaten, izaten, ditudan bidebage, txarkeri, ta neke guziak, nere neka-tzearekin irabaz dezadan Zeruko atsegin, ta gloria. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.*

## **BIGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Ematen zaio soñera Gurutzea***

Ni nere etzsaien eskuetara ez nadin, zere etsaien eskuetara zaran, ta ni bekatutik ateratzea gatik Gurutze pisu, ta sendor ori soñean daramazun, Jesus ona, indazu zere grazia, ta eskua, nere obenak, eta kulpak behar duten neke-kastiguen gurutzea eraman dezadan gogo on, edo borondate osoarekin, nagoen gero zurekin batean, nekerik bage, ta atsegin gustoz beterik sekula guzian. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **IRUGARREN GURUTZEA**

### ***Erortzen da Gurutzearen azpian***

Andia da nonbait, nere bihotzeko Jesus, nere obenen, ta kulpen Gurutzea; bada ezin jasoz,

izanik zu, Jainko gizon indarsua, eroria zautza orren azpian. Lagundu nai nikezu, Jesus maitea, zautzan lekutik jaikitzen. Ba-dakit nola; arinzen dudala zure gurutzea, ta uzten ditudala bekatu guziak. Indazu egin ditudanen damu andi bat, eta berririk ez egiteko, grazia. Hala gerta dedilla. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **LAUGARRREN GURUTZEA**

### ***Patzen du Jesusek Ama***

Izandu den semerik onena galtzera zoazen, Ama Birjiña, orra non datorren gurutze pisu bat soñean duela, zurea: ekusi nai ezbadezu odolturik dena, ta izerdiz, ta loiez betea; nai ez-pa dezu, ura horrela ekusteak erdira dezan zure *Bihotza*, ez da zer begiratu; edo, begiratzen badiozu, izan bedi, berari eskatzeko, nere nekeak ongi eramateko, ta zerua irabazteko behar dudan grazia. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **BOSTGARREN GURUTZEA**

### ***Laguntzen dio Gurutzea eramaten Simon Zirineok***

Kalbariora baño len Gurutzepean bizia gal zenezan beldurrez, ta lenbait len Gurutzean iltzez josirik ekusteagatik zu, eman zizuten, lagun egiteko, Simon zeritzan, gizon bat. Zori oneko gizona ori: ta zori onekoa ni ere, artzen ba-ninduzu orrekin batean! Ar nazazu arren orain zere laguntzat, sar nadin gero zurekin batean, Gurutze orretan irabazi behar didazun, Zeruko glorian. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **SEIGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Garbitzen dio Beronikak izerdia***

Gurutze pisuarekin zenbiltzanean, erortzen zitzaitzun odol, ta izerdia garbitzeko, Beronikak ekarri zizun oialean, zere antza, ta imajiña utzi zenuen. Jesus negez betea, utzazu nere biotzean zure neke guzien señailea, oroi nadin zuri zor dizudanaz, ta nagoen beti eskerrak zuri ematen emen, ta Zeruan. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **ZAZPIGARREN GURUTZEA**

### ***Erortzen da bigarren aldian***

Simon Zirineok laguntzen dizula ere, Gurutzea ezin eramanez, berriz erori zaran, Jesus maitea; orduan artu zenituen ille-tiraka, ta ostiko zikiñak gatik, indazu grazia, ar ditzadan nik zure izenean, lurrean egiten zaizkidan bidebage guziak; nagoen gero zu ekusten zaitudala, atsegin, ta gustoz beterik Zeruan. Am. *Aita gurea, ta Abe Maria* .

## **ZORTZIGARREN GURUTZEA**

### ***Hitz egiten die Jerusalemgo Alabai***

Flakiaz, kargaz, ta nekez beterik zenbilzala, nekatua ez-bazeunde bezala, Jerusalemgo Alabai jakin behar zutena erakutsi zenien, Jesus maitagarria, erakus zadazu, zer egin behar dudan, Zeruko bidean ez uts-egiteko, ta bide onetan izan bear ditudan neke guziekin iraun dezadan zure grazian, eriorzeko orduraño: indazu, daramazun neke andia gatik, orratarako behar dudan laguntza, ta eskua. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria, etc.*

## **BEDERATZI GARRENGURUTZEKO OTOITZA**

### ***Erortzen da irugarren aldian***

Bekatuen azpitik atera, ta jaiki nadin, irugarren aldian lurrera zaituen gurutzea rekin zabilzan, Jesus nekatua, lagun zakizquit lenbait len, bekatuen karga utzirik, arin diezazudan Gurutze pisu ori, egin dizuten nere kulpen damu andi batekin, ta irabaz dezadan, gaurgero zu bihotz guziz maitatzeko grazia. *Aita gurea, eta Abe Maria.*

## **AMARGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Kentzen diotzate soñekoak***

Soñekorik bage zere burua ekusi zenuenean izandu zenuen lotsa gatik, eskatzen dizut, Jesus maitea, Zerua izarrez, ta lurra lorez estalzen duzun bezala, estal nazazula graziaren, ta birtuteen soñeko ederrarekin, jar nadin, egunen batean, Zeruko eztei garbietako maian Aingeru, ta Santu guzien artean. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **AMAICA GARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Gurutzean ilzatzen dute Jesus***

Asma-al adiña neke rekin ekarri duzun gurutzean itzatutik arkitzen zaran, Jesus Ona, nere bekatuak egin dizuten ohatze edo oi gogorragatik, edo orretan dara mazkitzun nekepenak gatik, egizu arren, geldi dedilla nere bihotza, ta anima pena, ta neke orien damuzko iltzez zure Gurutzean jotsia; beste munduraño ez dut nai zurekin nekatzea beste atsegiñik. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **AMABIGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Iltzen da Jesus Gurutzean***

Oiñ eskuetako zaiñak iltzez urratuak, Gorputza odolez, ta oñazez betea, ta anima nekezko itsaso egiñik, azkeneko asnaseraño iduki zenituen Jesus Ona, badaquít, zere neke guzien artean ez ninduzula zere gogotik utzi. Ez dut nit zuri nondik eman zor dizudana; eman dezakedana, ta gaurgero gogotik emain dizudana da, ni gatik eraman dezun nekearen damu andi bat. *Aita gurea, ta Abe Maria.*



## **AMAIRUGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Jesusen Amaren Dolorezko bakartasuna***

Nere bekatuak kendu zizuten, zere Seme bakarra illik ekusi zenuenean, nork-nai daki, ama maitea, itsasoa bezain andia izandu zela zure *Bihotzeko* illuntasuna, ta sentimentua. Damuz nago ni ere, zeren ni gatik galdu dezun, guziak baño geiago balio duen, ta ezin geiagoraño maite zenuen zere semea. Zere *Bihotzeko* neke andia gatik indazu arren, zure nekeak, eta Semearen eriotza bekatu berriekin, berritu gabe bizitzeko grazia. Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **AMALUGARREN GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Jesu Kristoren Sepultura Santa***

Badakit, Jesus maitea, Gorputzean eraman zenituen, nekeak neke andi-gogorrek zirala: badakit, ill ondoan ta illen sepulturara eraman zinduztela; ta badakit, Jainkoa ezezik gizon egiazkoa zarala. Ni gatik eraman dituzun neke andi, ta eriotz gogorra gatik eskatzen dizut, izan nadilla ni, komulgatzen nazan guzietan, zure Sepulkro garbia; ta utzi nazazula zere graziz, ta amorez

betea, irabaz dezadan aisa sekulako gloria.  
Amen. *Aita gurea, ta Abe Maria.*

## **AZKENEKO GURUTZEKO OTOITZA**

### ***Agerzen zaio Madalenari***

Nekatua zenbilzanean, Jesus maitea, zurekin zebillen, zure nekeen sentimentuz beterik, Santa Maria Madalena; ta biztu, edo resuzitatu orduko billatu zenuen, lengo damu sentimentuen alde atsegin andi bat ematera: nai nukenik ere, emendik deitzen nazunean zure arpegi ederra Zeruan ekustea gatik, zure nekeak, eta Pasio santa gogoan ditudala damuz, ta sentimentu onez beterik bizi. Indazu onetarako behar dudana, ta zuk nai dezun guzia egiteko grazia. *Aita gurea, etc.*

## **JESUSEN BIHOTZAREN BEDERATZ-URRUNA**

Bederatz-urren hau asi oi da Korpus Kristi egunean, akaba dedin Jesusen Bihotzarenean. Anizek egin oi dute illoro ere, asitzen dutela illa-

ren azkeneko ostegunean, akabatzeko ill berriaren lenbiziko ostiralean.

Bederatz-urrena egiten den egunetan egin behar dira, beste egunetan baño, zenbait obra on geiago. *Lenbizikoa* izan diteke ongi konfesatu, ta komulgatzea. *Bigarrena*, bost aldiz edo ditekeenetan, joatea Jesus Sakramentatua Elizan ekustera: an dion amorea zenbat estimatzen duen, ta gaizki komulgatzen diranak eman derozten sentimentuen penez dagoela, aditzera ematera.

*Irugarrena*, bere mihi, begi, beharri, ta gañerako sendituak kuidoaz gordetzea; ta osasunak laguntzen ba-dio, edo uzten ba-diote egitekoak baruren bat, edo beste ateratzea, edo edozein bidez gorputza zerbait nekatzea.

*Laugarrena*, irakurtzen, edo leitzen, eta Jesusen *Bihotzeko* neke amoretan pensatzen, zerbait denbora pasatzea.

## **BEDERATZ-URRENAREN ASITZEA**

Al ba-dedi, egin behar da bederatz-urren hau, edo Sakramentu Santuaren, edo Jesusen *Bihotzaren* Estanparen baten aitzinean, edo abrean

Lenbiziko otoitz, edo orazioa asitzen da, ziñatu, ta *Nere Jesu-Kristo Jauna, etc* erran, ta ondoan.

## **EGUN-ORO LENBIZIKO LEKUAN ESAN BEHAR DEN OTOITZA**

Gure Jesus maitea, zure *Bihotzari* Trinitade guziak eman ziozkan graziako ondasunak gatik, iguzu zurea dirudien bihotz garbi bana, bederatzen-urren onetan eskatu behar dizugun, ta konbeni zaikula zuk dakizun guziarekin.

## **LENBIZIKO EGUNEAN BAIZIK ERRAN BEHAR EZ DEN OTOITZA**

Gure biotzeko Jesus ona, gure oztasun, ta utsegiteak gu gandik kentzeko zere *Biotzean* duzun ansia, ta deseoa andia gatik, bero zazu zere amorearen suan gure bihotza, ta lagun zaguzu, gure damu, ta sentimentuarekin zure *Biotzeko* sentimentu, ta nekeak arintzen, ta ez arren ukatu bederatzen urren onetan eskatzen dugun gauzarik. Ala gerta dedilla.

*Orain erran behar dira iru Aita gure, &c. Jesu-sen Bihotza-ren iru señaileak aditzera ematen duten amore, ta penen izenean.*

## **EGUN GUZIETAN AITA ETERNOARI EGIN BEHAR ZAION OTOITZA**

Aita Eternoa, bitarteko emanik, ezin geiago-raño nai dizun zure Seme maitearen *Bihotza*, eskatzen dizugu, argi ditzatzula, zu ezagutu, ta maitatzeko, itsuturik bizi diranak; artean, ta beti nai zinduzkegu guzien izenean ezagutu guk, eta gogotik maitatu. Iduki zatzu zere grazian bataiatu-rik dauden guziak, eta ekarri graziaren argira, argi onetatik urrun dabiltzanak. Ez dezala arren batek ere Jesus ona ezagutu bage, ta maitatu bage gaurgero utzi. Guziak gatik il zen ezker, guziak sar ditezela bera gatik Zeruan. Beraren *Bihotzean* sarturik utzi nai genituke gure Aide, ta adiskide, guk zor diegun, ta guri ongi, edo gaizki nai diguten guziak; guziak ar dezaten zure gandik emen grazia, ta beste munduan gloria. Ala gerta dedilla.

*Emen eskatzen da, Jesusen Bihotza bitarteko  
arturik, erditsi nai den guzia.  
Gero erraten da.*

*Aña.* Improperium expectavit Cor meum, & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

*V.* Discite à me, quia mitis sum, humilis Corde.

*R.* Et invenietis requiem animabus vestris.

## **OREMUS**

Domine Jesu, qui inefabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius ut gratiis coelestibus, ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda nostra ditari, ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in saecula saeculorum. Amen.

**EMEN, TA KOMUNIOKO  
egunetan beintzat,  
erran behar den,  
ta anitz balio duen  
Otoitza**

*Jesus-en Anima, birtutez bete nazazu.*

*Jesus-en Bihotza, amorez erre nazazu.*

*Jesus-en Gorputza, salba nazazu.*

*Jesus-en Odola, amorez zora nazazu*

*Jesus-en Biohtzeko ura, garbi nazazu.*

*Jesus-en Pasioa, indarsu egin nazazu.*

*Nere Jesus ona, adi nazazu.*

*Zure Llagetan zure Biotzaren erdian gorde nazazu.*

*Ez nadilla ni ortik beñere atera.*

*Ez nadilla ni etsaien Eskuetan erori.*

*Nere eriotzeko orduan deitu nazazu.*

*Zure gana eraman nazazu.*

*Zure Santu ekin alaba zaitzadan beti sekula guzian.*

## **BIGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA**

Jainkoak gu gana etortzeko, ta bere gana eramateko ate, ta bidetzat artu zaituen, Jesusen *Bihotza*, egon zaitez beti idikia, ta zabaldua, noiznai sar gaitezen zure Aita gana, zu maitatzeko behar dugun graziaren eske. Iguzu zure penen pena andi bat, eta orain eskatzen dizugun guzia. Ala gerta dedilla.

## **IRUGARREN EGUNEKO BIGARREN OTOITZA**

Ur garbizko iturri Jesusen *Bihotz* andia, egarritz itotzen gaude, edo zure birtute, ta deboziozko urez ase naiez. Nai genuke denbora berean, Aldare Santuan mundu guziak egin dizkitzun bidebage, edo injurien damu andi bat, baita orain eskatzen dizugun guzia ere. Ala gerta dedilla.

## **LAURGARREN EGUNEKOA**

Jesusen *Bihotz* garbi, birtute, ta Santidarezko ispillu ederra: nai genuke, zuri begira gaudela, hitz, asmo, lan, ta gogo guzietan zure irudiko bihotz batekin gelditu, baita artu ere, gu gatik anitzetan, ta nion baño geiako Aldareko sakramentu Santuan artu dituzun bidebage guzien damu andi bat, egun onetan eskatzen dugun guziarekin. Ala gerta dedilla.

## **BOSTGARREN EGUNEKOA**

Gure gauza, ta lan onai azkeneko izatea, edo edertasuna ematen diezun, ta *Bihotz* bera duzun, Jesus on maitagarria, uzten ditugu guziak



zure eskuetan, molda ditzatzun, ta utzi zure Aitaren begietara atera ditezkean bekala; ta eskatzen dizugu, diguzula zure eskua, mundukoen eskutik artu dituzun bidebagen damu, ta sentimentu andi bat artzeko, orain eskatzen dizugun faborearekin batean. Ala gerta dedilla.

## **SEIGARREN EGUNEKOA**

Behar duguna Jainkoari eskatzeko Eliz eder bat zere *Bihotzean* utzi diguzun Jesus, amorez betea: milla esker zuri Eliza onetan arkitzen dugun atsegin, kontentu, ta ditxa gatik. Ortik atera bage, nai genituke gure egunak akabatu; nai genituke, or bizi garala, geren damuarekin zure damua, ta penak arindu, ta zure eskutik behar ditugun gauza guziak artu. Ala gerta dedilla.

## **ZAZPIGARREN EGUNEKOA**

Zure izenean, ta zure *Bihotzeko* amoreak gatik eskatzen zaion gauzarik utzatzen ez dakien Aitaren Seme Jainko Gizon egiazkoa, zu bitarteko emanik, eta zure Aldareko bidebageen damu, ta sentimentuz beterik, eskatzera goaz, erditsi

nai duguna. Lagun zakizkigu, uka ez diezagun beñere, eskatzen dugun gauzarik. Ala gerta dedilla.

## **ZORTZIGARREN EGUNEKOA**

Gure amorez urtzen zauden, Jesusen *Bihotz* ederra, nai genuke geldi litezen gure, ta guzien bihotzak su orretan urtuak, amorez erantzuteko zure amoreari. Ez arren hau ukatu, ez eta orain eskatzen dugun gauzarik ere. Ala gerta dedilla.

## **AZKEN EGUNEKOA**

Gure bekaturen arantza gurutzeak nekez bete zaituzten, Jesus maitea, bete behar dituzu zure *Bihotzeko* amoreak gatik graziaz, ta Zeruko ondasunez gure bihotz gogor gaistoak. Eman behar diguzu denbora berean, gure bekatu itsusiak zuri eman dizuten tristuraren damu, ta tristura andi bat. Eta ez arren ukatu bederatz urren onetan eskatu dizugun gauzarik. Ala gerta dedilla.

# JESUSEN BIHOTZ MAITEARI

*Gure gusto, gure atsegin*

gure Jesus maitea;

*Zere Bihotzeko suan*

Erre zazu gurea.

Gure obenak, gure loiak

Lenik kendu behar dira:

Ura zara, ken itzaku;

Galdu gara bestela.

Ba-dakigu, zaudela

Gure amorez betea.

*Zere Bihotzeko suan*

Erre zazu gurea.

Etzeuden bakarrik loiak

Gure bihotz gaistoan;

Busti ta ur egiña dago

Bekatuen kutsuan

Gar[...]

[97 eta 98. orrialdeak falta dira]

lantz erdiratzallea.

Damuz autsi ba-ledi

Nere barren tristea!

*Zere Bihotzeko suan, &c.*

Arantza zorrotzak baizik  
Ez dezu nere eskutik:  
Nere kulpen arantzekin  
Dena zaude odolturik.  
Ah ni baldin ba-nengo  
Negar damuz asea!  
Zere *Bihotzeko* suan, &c.  
Gure kulpak egin dute  
Gurutze sendor ori:  
Ezartzen diote kulpak  
Zure *Bihotz*-onari.  
Kulpa gaisto, ta oben gogor  
Oben-kulpa nerea!  
Zere *Bihotzeko* suan, &c.  
Zer nai duzu? Zertan zaude,  
Jesus ona Aldarean?  
Txarkeriak artzen dago  
Amorezko lekuan.  
Txarkerien pena nai du,  
Nai du gure amorea.  
Zere *Bihotzeko* suan, &c.  
Ez dut behar maitatu  
Jesus zure *Bihotza*?  
Artu behar ez dut nik

Zure nekeen damua?  
Eske nator, zabal zazu  
Sar nadir or Atea.  
Zere *Bihotz*-eko suan  
Erre zazu gurea.